

ESKAERA

Eilastasuna 2009

PROIEKTUAREN IZENA: Hizkuntza eta kultura maputxearen irakaskuntza sustatu Lloncaoko F-817 eskolan eta jarduera horren ekintzen berri ematea.

Tokia	Txile Cañete-Lloncao	Bertoko erakundea	"FOYENTU" (Bosque de Canelo) elkarte maputxea
Arloa	Bertoko kultura eta hizkuntzaren sustapena	Eilastasuna kopurua	2.130.000 peso – 2.840 EURO

Bertoko erakundea

Foyentu –Canelo basoa- Elkarte Maputxea 19.418 legearen arabera 732/2008 nortasun juridikoa du eta 15 familiak osatzen dute, Txileko VIII eskualdeko Cañete Komunako Lloncao lurraldekoak.

Beren helburuak dira beren kideen giza garapen ekologikoa bultzatzea euren lurretan eta Lloncaoko lurraldean. Horrez gain, herri Maputxearen eskubide ekonomiko, sozial, político eta kulturalen alde egiten du borroka. Horretarako hizkuntza maputxea zabaltzeko ekintzak antolatzen ditu eta nekazaritza jarduerak era biodinamikoan garatzen ditu ekosistemak eta ingurua zaintzeko. Bestalde, harremanak ditu eta sendotu nahi ditu beste komunitate maputxe batzuekin eta zenbait erakunderekin.

Zertan datza proiektua

- Maputxe kultura eta hizkuntza irakatsiko zaie bigarren urtez 23 ikasleri Cañete komunako Lloncao lurraldeko F-817 udal eskolan. Aurretiaz hiru urtez egin genuen lan asteburuko jarduera gisa.
- Jardueraren ikusgarritasuna bultzatzeko ekintzak:
 - F-817 eskolaren eta kultura eta hizkuntza maputxearen jardueraren Web orria. Bertan toki berezia izango lukete emakumeen jarduerak eta neska-mutikoekin egiten dituztenak.
 - Film dokumentalen erakusketa, ondoko gaiak abiapuntu:
 1. Mapudungun hizkuntzaren irakaskuntza-esperientziak Txilen
 2. Emakume maputxea eta bere zeregina eta garrantzia mapudungun hizkuntzaren transmisioan.
 3. Beste esperientzia batzuk hizkuntza irakaskuntzaren transmisioan: euskara, katalana, bretoiera
 4. Lloncaoko F-817 eskolan egindako dokumentalaren aurkezpena.
- Prestakuntza ikastaro bat monitoreentzat eta kimchearentzat eskolak emateko materialaren garrantziaz eta prestakuntzaz.

Proiektuaren zuzeneko onuradunak

- F-817 mapudungun hizkuntza irakatsita onura egiten zaie eskolak hartzen dituzten 23 ikasleei eta haien guraso eta arduradunei.
- Era berean, mesede egiten zaie eskolari eta bertako 98 ikasleei.
- Horren onura jasotzen du Eskolako Guraso eta Arduradunen Elkarteak.
- Web orria sortuta onura egingo zaie beste talde maputxe batzuei eta nazioarteko zenbait erakunderi, bertan informazioa eskuratu ahal izango baitute. Horren onura jasoko dute Lloncaoko emakumeek euren web-orria izango baitute.
- Hizkuntzaren irakaskuntzaren zinema maputxe izeneko emanaldiak Lurraldeko eta Txileko beste eskola batzuei onuragarriak gertatuko zaizkie, haien esperientziaren berri emateko aukera izango baitute.

Proiektuaren zeharkako onuradunak

- Zeharkako onura jasoko dute Lloncaoko gizarte taldeek eta bertoko 1.300 lagunek, auzo elkarteak, elkarte eta komunitate maputxeek, osasun komiteak, arrantzaleen elkarteak, emakumea artisauen elkarteak, kirol taldeak...
- Cañeteko udalak eta beren hezkuntza sailak ere zeharkako onura jasoko dute.

Aurkeztutako aurrekontua

Musika irakaslearentzako diru-laguntza bi hilabetez (8 saio)	100.000
Hizkuntza maputxeko irakaslearentzako –Kimche- diru-laguntza bost hilabetez (20 saio)	350.000
Proiektua koordinatu eta jarduerak bermatuko dituen kulturartekotasun arduradunarentzako diru-laguntza, 9 hilabetez (36 saio)	450.000
25 ikaslerentzako eskola tresneria: koadernoak, arkatzak, borragomak...	130.000
Ordenagailua eta hori osatzeko eskanerra eta kopiagailua. Horren helburua da web orria bermatzea eta material didaktikoa egiten hastea.	500.000
Film erakusketa Data Show proiektorea eta soinurako tresneria alokatu 300 kartel erakusketa iragartzeko Bertoko irrati eta telebistan iragarri	600.000
ESKATUTAKOA GUZTIRA	2.130.000 PESO 2.840 EURO

Harremanak eta jarraipena

Bertoko arduraduna: Gloria Huenchuleo Álvarez (glohuenchuleo@hotmail.com)

Jarraipena: Mentxu